

Garraio-zerbitzua Kudeatzeko Ziztu Unibertsitate Elkartearen Barne Araudia (CIF: G56622640)

LEHENENGO KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua - Xedea
2. artikulua - Aplikazioa
3. artikulua - Definizioak
4. artikulua - Garraio-txartela

BIGARREN KAPITULUA: BAZKIDE ERABILTZAILEAREN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK

5. artikulua - Bazkide erabiltzailearen betebeharrak
6. artikulua - Bazkide erabiltzailearen eskubideak
7. artikulua - Galdutako objektuak
8. artikulua - Kexak eta iradokizunak

HIRUGARREN KAPITULUA: ZEHAPEN ARAUBIDEA

9. artikulua - Faltak
10. artikulua - Zehapenak

AZKEN XEDAPENA

LEHENENGO KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Araudi honen xedeak honako hauek dira: batetik, “*Garraio-zerbitzua kudeatzeko Ziztu Unibertsitate Elkartea - Asociación Universitaria Ziztu para la gestión del servicio de Transporte*” delakoaren garraio- zerbitzu erregularra eta berezia arautzea. Bestetik, bazkide erabiltzaileen eta Elkartearen arteko harremanak zehaztea, garraio-zerbitzuarekin zerikusia duten eskubide eta betebeharridagokienez.

2. artikulua. Aplikazioa

Araudi hau Elkartearen bazkide erabiltzaileei aplikatuko zaie.

3. artikulua. Definizioak

Araudi honen ondorioetarako, honela ulertuko dira ondoren ageri diren kontzeptuak:

- a) «zerbitzu erregularrak»: erabiltzaile bazkideen garraioa maiztasun eta ibilbide jakin batekin egiten duten zerbitzuak, bazkide erabiltzaileak aldeztatik finkatutako geltokietan jaso eta uzten dituztenak.
- b) «zerbitzu bereziak»: zerbitzu erregularren definizioan sartzen ez diren zerbitzuak, bazkide erabiltzaileek osatutako taldeak ibilgailuan garraiatzen dituztenak bazkide horien edo Zuzendaritza Batzordearen ekimenez, eta kultura-, kirol-, jolas- edo prestakuntza-helburuak dituztenak.
- c) «bazkide erabiltzailea»: Elkartearen Estatutuen 28. artikuluko pertsonak.
- d) «ibilgailua»: pertsonak errepidez garraiatzeko egokitutako garraiobidea: autokarra edo autobusa, mini-busa edo mikrobusa, eta taxi-busa (turismo-automobila).
- e) «garraio-txartela»: garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea duen bazkidea dela egiaztatzen duen baliozko agiria.
- f) «garraio-kuotaren ordainagiria»: txartela berritu behar den kasuetan garraio-zerbitzua salbuespenez eta aldi baterako bakarrik erabiltzeko eskubidea duen bazkidea dela egiaztatzen duen baliozko agiria.
- g) «desgaitasuna duen pertsona» edo «mugikortasun urriko pertsona»: garraioa erabiltzean urritasun fisikoa (sentsoriala edo lokomotorrea, iraunkorra edo aldi baterakoa) dela-eta mugikortasuna murriztua duen pertsona, bere egoeratik arreta egokia eskaintzea eta bazkide erabiltzaile guztiei eskaintutako zerbitzuak bere beharrian berezietara egokitzea eskatzen duena.
- h) «geralekua»: zerbitzu erregular batean zehaztutako ibilbidearen arabera bazkide erabiltzaileak jasotzeko edo uzteko programatuta dagoen edozein puntu.
- i) «bertan behera uztea»: aurrez programatutako zerbitzu erregular bat ez egitea.

4. artikulua. Garraio-txartela

1. Gidariari garraio-txartela aurkeztu behar zaio ibilgailuan sartzean.
2. Ezin izango da ibilgailuetara sartu garraio-txartelik gabe.
3. Ezin izango da garraio-txartel akastunarekin edo desaktibatuarekin sartu. Kasu horretan, garraio-txartela berritzeko eskatu beharko zaio Zuzendaritza Batzordeari emailaz (ziztuelkartea@gmail.com).
4. Garraio-txartela aurkeztu ez bada, garraio-kuota ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztuz sartu ahal izango da ibilgailuan.
5. Zuzendaritza Batzordeak zehaztuko du garraio-txartela berritzeko prezioa.
6. Garraio-txartelik edo garraio-kuota ordaindu izanaren frogagiririk ez duten erabiltzaileek beren identifikazioa aurkeztu beharko dute kontrola egiteko eskumena duten langileek hala eskatuz gero.
7. Berea ez den garraio-txartela daraman erabiltzaileari egiaztagiria konfiskatuko zaio eta titularrak Zuzendaritza Batzordeari eskatu beharko dio garraio-txartela itzultzea. Garraio-txartela ez da itzuliko edo ez da garraio-txartel berririk emango harik eta zehapen-prozesua hasi arte. Araua berriro hautsiz gero, Elkartearen Estatutuek edo Araudi honek egoki iritzitako zigorrak ezarriko dira.

BIGARREN KAPITULUA: BAZKIDE ERABILTZAILEAREN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK

5. artikulua. Bazkide erabiltzailearen betebeharrak

1. Erabiltzaileek zerbitzuak behar bezala funtziona dezan ezarritako ordena- eta segurtasun-neurriak bete beharko dituzte, eta horretarako, enpresa operadoreko langileek esandakoa bete beharko dute, baita ibilgailuetan ikusgai jarritako kartel eta oharretan jasotakoa ere. Era berean, legez ezarritako baldintzen arabera, segurtasun arrazoiengatik zerbitzuan egiten diren grabazioak onartuko dituzte.
2. Erabat debekatuta dago, oro har, garraio-zerbitzuaren funtzionamendu egokia eragozten duen edozein ekintza, eta berariaz, honako hauek:
 - a. Ibilgailura igotzea edo ibilgailutik jaistea erabat geldirik egon gabe. Bazkide erabiltzaileak ezin izango dira ibilgailuan sartu, atea itxi eta gero galekutik irteteko maniobra hasi ondoren.
 - b. Geralekura iristeko hurrenkeraren arabera ibilgailuan sartzeko dagokion txanda ez errespetatzea.
 - c. Ibilgailuaren barruan alkohola, estupefazianteak edo beste substantzia toxiko batzuk kontsumitu eta garraiatzea.
 - d. Gainerako erabiltzaileentzat iraingarriak izan daitezkeen ekintzak burutzea.
 - e. Ibilgailuen barruan gauzak botatzea.
 - f. Ibilgailuetan erretzea.
 - g. Ibilgailuetan jatea.
 - h. Leheritu edo su har dezaketen gaiak aldean eramatea.

- i. Tamaina, bolumena, edukia edo usaina dela-eta, gainerako bazkide erabiltzaileei edo ibilgailuari kalte egin diezaieketen fardelak edo paketeak eramatea.
 - j. Edozein motatako animalia biziak aldean eramatea, betiere behar bezala prestatutako ontzietan garraiatzen ez badira, lege zaimenduta daudenak izan ezik.
 - k. Besteei eragozpenak sortzen dizkieten soinu- edo musika-aparatuak erabiltzea.
 - l. Gidariari hitz egitea edo berau distraitztea, zerbitzuarekin lotutako gaiak aipatzeko ez bada.
 - m. Ibilgailuen barruan propaganda banatzea, kartelak itsastea eta ondasunak edo zerbitzuak saltzea.
 - n. Ibilgailuan larrialdietarako ezarritako edozein segurtasun- edo sorospen-elementu justifikatutako arrazoirik gabe erabiltzea.
3. Ezbehar, kexa edo iradokizunen bat gertatzen bada eta informazio gehiago behar bada, ukitutako erabiltzaileak aldean lana erraztuko du, eta aurkeztu egingo da agintari eskudunek nahiz enpresa operadoreko langileek, Elkarteko langileek edo Zuzendaritza Batzordeko langileek hala eskatuta.
 4. Ezin izango da ibilgailuan sartu, edo, hala badagokio, ibilgailutik irtetera behartuko dute jarraibide hauetan jasotako xedapenak hausten dituen pertsona oro eta, oro har, hitzez edo ekintzaz gainerakoan ohorea iraindu, ordena asaldatau edo istiluak sortzen dituen edonor. Erabiltzaileak obeditzeari uko egiten badiu, enpleguak agintaritzaren laguntza eska dezake.
 5. Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe, jarraibide hauek urratzeak Estatutuek ematen dituzten eskubideak galtzea ekar dezake, garraio-kuota itzultzea edo eskubideon aldi baterako edo behin betiko erretiratzea barne.

6. Artikulua. Bazkide erabiltzailearen eskubideak

Bazkide erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:

1. Elkarteko eta enpresa operadoreko langileen aldetik tratatu egokia jasotzekoa. Erabiltzaileek eskatzen dizkieten laguntza- eta informazio-eskaerei erantzun beharko diete, zerbitzuarekin lotutako gaietan.
2. Ibilgailuen egoera egokia izatekoa, bai ezaugarri teknikoei dagokienez, bai higieneari eta garbitasunari dagokienez.
3. Desgaitasun fisikoa edo mugikortasun murriztua duten pertsonen lehentasuna izatea haien zat bereziki egokitutako espazioak erabiltzeko.
4. Erabiltzaileek eskubidea dute ibilgailuaren norakoa identifikatzen duten seinaleak edukitzeko ibilgailuaren kanpoaldean.
5. Erabiltzaileek alde aurretik eta behar den moduan jakiteko eskubidea dute lineen aldaketak, baita zerbitzuari eragiten dion eta alde aurretik aurreikusi eta programatu den beste edozein aldaketa ere.
6. Bidaia hasi ondoren, matxura baten edo enpresa operadoreari egotzi lekiokkeen arrazoi baten ondorioz bidaia eteten bada, bazkide erabiltzaileak eskubidea izango du enpresa operadoreak ibilgailua ahalik eta azkarren ordeztu dezan, bai erreserbako ibilgailuei abisatuz, bai ordeztu bat jarri, bazkide erabiltzaileak beren helmugara eramateko.

7. artikulua. Galdutako objektuak

Elkarteak bitartekaritza lanak egingo ditu bazkide erabiltzaileen eta enpresa operadoreetako langileen artean, ibilgailuetan galdutako gauzak aurkitu eta itzultzeko.

8. artikulua. Kexak eta iradokizunak

Erabiltzaileak eskubidea du Zuzendaritza Batzordeari kexak eta/edo iradokizunak bide telematikoz aurkezteko (ziztu elkarte@gmail.com). Erabiltzaileen senitartekoen kexak eta/edo iradokizunak bakarrik hartuko dira kontuan, baldin eta ezinbesteko arrazoi batengatik erabiltzaileek ezin badituzte bidali.

HIRUGARREN KAPITULUA: ZEHAPEN ARAUBIDEA

9. artikulua. Faltak

Garraio-zerbitzuarekin erlazionatutako hutsegiteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

1. Zerbitzuari dagokionez, hutsegite arinak dira:
 - a. Zerbitzuaren ordena eta garapen onerako ezarritako arauzko aginduak eta funtzionamendu arauak ez betetzea, ezinbestekoa da-eta arauak ezagutzea, horrek zerbitzuaren funtzionamendurako ondorio negatiborik ez badakar.
 - b. Langileek beren eginkizunetan aritzean emandako jarraibideei jaramonik ez egitea, baldin eta aldezturik identifikatu badira eta horrek zerbitzuaren funtzionamendurako ondorio negatiborik ez badakar.
 - c. Gidarien eta enpresa operadoreetako langileen oharrei eta jarraibideei kasurik ez egitea, horrek zerbitzuaren funtzionamendurako ondorio negatiborik sortzen ez badu.
 - d. Zuzendaritza Batzordeak deitzen dituen bileretara ez joatea, bidezko arrazoirik izan gabe, bileraren horietara joateko berariaz eskatu zaionean, dagokion zitzazioaren bidez.
 - e. Zerbitzuaren ohiko funtzionamendua oztopatzen duen beste edozein ekintza edo omisio, baldin eta, kolektiboaren interesetarako kaltegarritzat jo badaitezke ere, zuzenean pertsonen edo gauzen kalterik egiten ez badiete, eta artikuluko honetako 2.b) eta 2.c) atalean tipifikatuta ez badaude..
2. Zerbitzuari dagokionez, hutsegite larriak dira:
 - a. Falta arinak errepikatzea edota bi falta arin edo gehiago pilotzea hiru hilabeteko epean edo gutxiagoan.
 - b. Artikulu honetako 1. atalekoak, zerbitzuaren funtzionamendurako ondorio negatiboak eratortzen badira.
 - c. Zerbitzuaren funtzionamendu egokia aldatzea, nahita atzerapenak edo bestelako gorabeherak sortuz.
 - d. Elkarrekin kontratatutako ibilgailuak nahita hondatzea.
 - e. Elkarrekin kontratatutako ibilgailuetan liskarrak edo iskanbilak sortzea.

- f. Ordutegiak edo ibilbideak aldatzea edo moldatzea horretarako baimenik izan gabe.
 - g. Behar bezala identifikatuta dagoen erabiltzaile bati ibilgailuan sartzen ez uztea, horretarako arrazoirik izan gabe.
 - h. Garraio-txartelak behar ez bezala eskuratzea edo nahita hondatzea.
 - i. Kuotak ordaindu ez dituztelako edo zerbitzua erabiltzea eragozten dien zigorra jaso dutelako zerbitzua erabiltzeko eskubiderik ez duten pertsonen, bazkide izan zein ez, zerbitzua erabiltzeko erraztasunak ematea.
 - j. Aldez aurretik Zuzendaritza Batzordearen oniritzia jaso ez duen edozein informazio, publizitate edo propaganda (hitzezkoa, idatzizkoa edo ikus-entzunezkoa) Elkarteak kontratatutako ibilgailuetan banatzea edo zabaltzea, batez ere informazioa Elkartearen izaera ez-ideologikoaren aurkakoa denean.
 - k. Zuzendaritza Batzordeko kideak, Elkartearen zerbitzuko langileak, enpresa operadoreetako gidariak edo langileak, edo beste bazkide batzuk iraintzea, garraio-zerbitzuarekin zerikusia duten arrazoiengatik.
3. Zerbitzuari dagokionez, hutsegite oso larriak dira:
- a. Falta larriak errepikatzea edota bi falta larri edo gehiago pilatzea hamabi hilabeteko epean edo gutxiagoan.
 - b. Organo eskudunek baliozkotasunez hartutako akordioak, garraio zerbitzuarekin harremana dutenak, modu nabarmenean ez betetzea.
 - c. Aldez aurretik kuotak ordaindu gabe garraio-zerbitzua erabiltzea.
 - d. Garraio-txartela hirugarren pertsonen ustea, behar ez bezala erabil dezaten.
 - e. Zuzendaritza Batzordearen aurrean egindako adierazpena faltsutzea, diziiplina espediente baten inguruan deklaratzeko denean.
 - f. Zuzendaritza Batzordeko kideei, Elkartearen arduradunei, Elkartearen zerbitzuko langileei, enpresa operadoreetako gidari eta langileei, edo beste bazkide batzuei eraso fisikoa egitea, garraio-zerbitzuarekin zerikusia duten arrazoiengatik..
 - g. Elkartearen zerbitzuko langileen, gidarien eta enpresa operadoreetako langileen ondasunak bidegabeki eskuratzea garraio-zerbitzuan zehar.
 - h. Ebazpen judizial irmo batek emandako kautelazko neurriak ez betetzea garraio zerbitzuan zehar.
 - i. Artikulu honetako 2. atalean adierazitako guztiak, baldin eta behin eta berriz errepikatzeak, gertaera-moduak edo egoerak fede txarra edo garraio-zerbitzuaren funtzionamendua arautzen duten arauak ez betetzeko asmo irmoa adierazten badute, edo eragindako kalte edo galeren zenbatekoak bereziki onartezinak badira.

10. artikulua. Zehapenak

Garraio zerbitzuarekin lotutako hutsegiteetan, zehapen hauek aplikatuko dira:

- 1. Arau-hauste arinetan:
 - a. Zuzendaritza Batzordeak ahoz emandako kargu-hartzea.
 - b. Elkartearen erantzukizuneko karguak betetzeko sei hilabeteko desgaitzea.

2. Arau-hauste larrietan:

- a. Zuzendaritza Batzordeak idatziz egindako ohartarazpena.
- b. Elkartean erantzukizuneko karguak betetzeko urtebeteko desgaitzea.
- c. Garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea aldi baterako etetea Zuzendaritza Batzordeak finkatzen duen epean. Epe hori ezin izango da astebete baino gutxiagokoa izan eta ezta hiru hilabetetik gorakoa ere. Ez da ordaindutako kuoten zati proportzionala itzultzeko eskubiderik izango.

3. Arau-hauste oso larrietan:

- a. Zuzendaritza Batzordeak idatziz egindako ohartarazpena.
- b. Elkartean erantzukizuneko karguak betetzeko behin betiko desgaitzea.
- c. Garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea aldi baterako etetea Zuzendaritza Batzordeak finkatzen duen epean. Epe hori ezin izango da hiru hilabete baino gutxiagokoa izan eta ezta urtebetetik gorakoa ere. Ez da ordaindutako kuoten zati proportzionala itzultzeko eskubiderik izango. .

Izugarri larriak diren kasuetan eta hutsegite oso larriak behin eta berriz egin edo pilatzen direnean, Zuzendaritza Batzordeak arau-hauslea kanporatzea erabaki dezake, dagokion zehapena gorabehera.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau Batzar Orokorrak onartzen duen unean jarriko da indarrean.

[Eguneratua: 2025.06.29]